

ESTABLEZIMENTU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK. 2020KO UZTAILA

2020ko uztailean, Euskal AEko hotel, landa-ostatu eta apartamentu turistiko guztietan, sarrerak % 44,0 eta gualdiak % 48,3 jaitsi dira

Hala ere, sektorearen jarduerak gora egin du ekainarekin alderatuta: 949 turismo-ostatu izan dira jardueradunak, ekainean baino % 30 gehiago, eta guztira 412.181 gualdi izan dira, ekainean baino 296.489 gehiago

Euskal AEko hotel, landa-ostatu eta apartamentu turistiko guztietan, 2020ko uztailean, 201.839 sarrera erregistratu dira guztira, hau da, 412.181 gualdi, 2019ko uztailean baino % 44,0 eta % 48,3 gutxiago, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

Zifra horiek agerian uzten dute COVID19aren krisiak Euskal AEko turismo-sektorean izan duen eragina luzatu egiten ari dela, neurri batean turismo-establezimenduak berriz irekitzeko mugak eta baldintzak ezarri baitziren maiatzaren 9ko Aginduan (SDN/399/2020), salbuespenezko egoerei aurre egiteko.

Hala ere, aurreko hilabeteekin alderatuta, 2020ko uztailean turismo-sektorearen jardura pixkanaka handitzen ari dela ikusi da; izan ere, ekainean 417 establezimendu zeuden itxita, eta uztailean, berriz, 204. Lurraldekako eboluzioa antzekoa da hiru lurraldeetan. Araban 73 establezimendu zeuden itxita ekainean, eta 42 uztailean; Bizkaian 141etik 73ra igaro da, eta, azkenik, Gipuzkoan 89 egon dira itxita uztailean, noiz eta ekainean 203 baitziren.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren ostatu turistikoak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak
Uztaila	949	204	161	42	325	73	463	89
Ekaina	730	417	130	73	254	141	346	203
Maiatza	400	745	63	140	148	247	189	358
Apirila	109	1037	15	188	48	347	46	502
Martxoa	943	204	171	32	324	72	448	100
Uztaila 2019	1047	72	184	14	365	22	498	36

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 201.839 sarrera erregistratu dira 2020ko uztailean, % 44,0ko beherakada aurreko urteko hil beraren aldean. Urte arteko bilakaera ez da homogeneoa izan lurraldeen artean. Horrela, Gipuzkoan (Euskal AEko sarrera guztien % 51,3) sarreraren baturak % 29,4 egin du behera 2020ko uztailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Erkidegoko sarreraren % 36,0 izan dira guztira, eta sarrerak % 56,6 gutxitu dira. Azkenik, Araban % 45,0 gutxitu dira sarrerak, Euskal AEko sarreraren % 12,7rekin.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Uztaila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	412.181	-48,3	201.839	-44,0
Araba/Álava	53.217	-46,6	25.726	-45,0
Bizkaia	150.504	-56,6	72.617	-56,6
Gipuzkoa	208.460	-40,4	103.496	-29,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Gaualdien bilakaera uniformeagoa izan da lurraldeen artean. Horrela, Gipuzkoan 2020ko uztailean zenbatutako gaualdien kopurua aurreko urteko hilabete berean baino % 40,4 txikiagoa da, Araban jaitsiera % 46,6koa da, eta Bizkaian % 56,6koa. Horrenbestez, nabarmentzekoa da gaualdien urte arteko jaitsiera Gipuzkoan sarrerena baino handiagoa izan dela, batez besteko egonaldia murriztu egin baita; izan ere, Gipuzkoan, 2019ko uztailean 2,39 egunekoa izatetik 2020ko uztailean 2,01 egunekoa izatera igaro da. Bizkaian eta Araban, aldiz, 2019ko uztailetik 2020ko uztailera arteko batez besteko egonaldiaren aldakuntza neurritsuagoa izan da: Bizkaian 2,08tik 2,07ra eta Araban 2,13tik 2,07ra, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoak

Apartamentu turistikoen kasuan, 2020ko uztailean jardueraren bat izan duten establezimenduen kopurua handiagoa izan da aurreko urteko hilabete berean jarduerarik izan zuten establezimenduena baino (2020ko uztailean 88 eta 2019ko uztailean 81). Lurraldeen arabera, Araban 2 establezimendu gutxiagok izan dute jarduerarik 2020ko uztailean; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, kopuru hori handiagoa da aurreko urteko uztailean izandakoa baino (Bizkaian, 2019ko uztaileko 26tik 2020ko uztailaren 30era, eta Gipuzkoan 35etik 40ra, hurrenez hurren).

Halarik ere, apartamentu turistiko jardueradunen unitate-kopuruak gora egin duen arren, Euskal AE osoan apartamentu turistikoetan erregistratutako sarrera-kopuruak % 27,4 egin du behera 2019ko uztailaren aldean, 7.942 sarrera erregistraturekin guztira. Halaber, denboraldi berean, gaualdiak % 30 jaitsi dira, eta hileko guztizkoa 27.754 izan da.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren apartamentu-establezimenduaren unitateak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak
Uztaila	88	15	18	5	30	2	40	8
Ekaina	73	28	16	7	26	5	31	16
Maiatza	45	55	13	10	14	17	18	28
Apirila	22	78	6	17	8	23	8	38
Martxoa	82	18	20	3	24	7	38	8
Uztaila 2019	81	4	20	1	26	0	35	3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Arabak 1.125 sarrera eta 5.869 gaualdi zenbatu ditu, Bizkaiak 3.798 sarrera eta 10.794 gaualdi eta Gipuzkoak 3.019 sarrera eta 11.091 gaualdi. Urte arteko alderaketa (2020ko uztaila 2019ko uztailaren aldean) nahiko antzekoa da lurraldeen arabera gaualdi-kopuruari dagokionez (% 33,1eko, % 28,5eko eta % 29,7ko jaitsierak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan), baina desberdina da erregistratutako sarrera-kopuruari doakionez. Halatan, Bizkaian eta Gipuzkoan urte arteko jaitsiera % 25,9koa eta % 32,5ekoa izan da, hurrenez hurren, baina Araban % 16,3koa.

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Uztaila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	m/m-12 (%)	2020/07	2019/07
EUSKAL AE	27.754	-30,0	7.942	-27,4	3,49	3,62
Estatukoak	20.984	-16,1	6.063	-7,3	3,46	3,82
Atzeritarrak	6.769	-53,8	1.879	-57,3	3,60	3,33
ARABA/ÁLAVA	5.869	-33,1	1.125	-16,3	5,22	6,53
Estatukoak	4.904	-27,0	993	-5,4	4,94	6,39
Atzeritarrak	966	-53,1	133	-54,9	7,28	7,00
BIZKAIA	10.794	-28,5	3.798	-25,9	2,84	2,94
Estatukoak	8.540	-11,7	3.007	-6,2	2,84	3,02
Atzeritarrak	2.253	-58,5	791	-58,9	2,85	2,82
GIPUZKOA	11.091	-29,7	3.019	-32,5	3,67	3,53
Estatukoak	7.540	-12,4	2.064	-9,8	3,65	3,76
Atzeritarrak	3.551	-50,4	955	-56,3	3,72	3,28

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurraldeen arabera, Arabak 1.125 sarrera eta 5.869 gaualdi izan ditu, Bizkaiak 3.798 sarrera eta 10.794 gaualdi eta Gipuzkoak 3.019 sarrera eta 11.091 gaualdi. Urte arteko alderaketa (2020ko uztaila 2019ko uztailaren aldean) nahiko antzekoa da lurraldeen arabera gaualdi-kopuruari dagokionez (% 33,1eko, % 28,5eko eta % 29,7ko jaitsierak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan), baina desberdina da erregistratutako sarrera-kopuruari doakionez. Halatan, Bizkaian eta Gipuzkoan urte arteko jaitsiera % 25,9koa eta % 32,5koa izan da, hurrenez hurren, baina Araban % 16,3koa.

Sarreraren eta gaualdien bilakaeren arteko aldeak erakusten du batez besteko egonaldian aldaketak daudela. Izan ere, Araban apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 5,22koa izan da 2020ko uztailan, eta 6,53koa 2019ko uztailan. Bizkaian eta Gipuzkoan, batez besteko egonaldia egonkorragoa izan da: 2019ko uztailako 2,94 egunetik 2020ko uztailako 2,84ra igaro da Bizkaian, eta 3,53tik 3,67ra Gipuzkoan. Euskal AEn, ostatu mota horien batez besteko egonaldia 3,49 egunekoa izan da 2020ko uztailan (3,62 egunekoa izan zen 2019ko uztailan).

Euskal AEko turismo-apartamentuetako sarreraren % 76,3 Estatukoak izan dira 2020ko uztailan, eta atzerriko jatorrikoak % 23,7. 2019ko uztailaren aldean, gaualdien gutzizkoan % 53,8 gutxiago izan dira atzerriko bidaiariak eta % 16,1 gutxiago Estatukoak.

COVID-19AREN KRISIAK ETHI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko. Gerora hartutako salbuespenezko neurriek zuzeneko eragina izan dute turismo-establezimendu hartzaileen ohiko jardueran. Itxiera ia erabatekoa izan zen, harik eta maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua argitaratu zen arte. Agindu horretan pixkanakako irekiera mugaturako oinarriak ezarri ziren.

Joan den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta kontuan hartuta maiatzaren 9ko Aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugak eta aldez aurreko baldintzak hotel eta establezimendu turistikoak publikoarentzat berriz irekitzeko, sektorearen jarduerak gora egiten jarraitu du pixkanaka.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, zabaldu ahal izan da hartutako neurriek sektorean izan duten eragina kuantifikatzeko aukera ematen duen informazio hau.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62